



BARREN

TOKIKOM

Estreinakoz emakumea txapeldun

Aitziber Olaizola, bolaria



FAMILIA EKINTZA
FAMILIA LEHIAKETA SUKALDEAN
Cocinas familiares en la cocina
Abenduak 30 de diciembre

HHS-LHI
AQUARIUMERA IRTEERA
Salida al Aquarium
Abenduak 28 Diciembre
10:00-17:00

KATAMIXARREN BASOKO SEKRETUAK EZAGUTU NAHI?
¿Quieres conocer los secretos de "Kotamixarren basoa"?
Abenduak 4 Irerri
09:30-13:30

LH2-LH3
BASAUBIKO ABENTURA BARKERA IRTEERA
Salida al patio de aventura de Basauri
Abenduak 27 Diciembre
10:00-17:00

GURE BASOETAKO FAUNAREKIN ETA FLORAREKIN ESPERIMENTATZEN
Experimentatzen sare le foresta y flora de nuestros bosques
Abenduak 3 Irerri
09:30-13:30

LH4-6
IRUÑEAKO SALTING-ERA IRTEERA
Salida al Salting de Pamplona
Abenduak 29 Diciembre
10:00-18:00

KATAMIXARREN BASOAN ALTZORRIK BA OTE?
¿Crees que hay tesoros en "Saltingaren basoa"?
Abenduak 5 Irerri
09:30-13:30

PROGRAMAZIÓ EGORRA
ELA ETRA
PROGRAMAZIÓ
HONBE
AL-SAKETAK OANI
DITZINK EDO
BORTAK BARRERA
GERATU

ATXUTXIAMIKAAREN ETA UDAL LUDOTEKAREN

EGUBERRIETAKO OPORRALDIA 2021

IZEN EMATEA Inscripción
Aztararen 29tik abenduaren 3ra
Del 29 de noviembre al 3 de diciembre

UDALAREN DIRULAGUNTZAK Subvenciones del Ayuntamiento
EPEA: ABENDUAK 31 PLAZO: 3 DE DICIEMBRE
Informazio Udaleran Informazio en el Ayuntamiento
943740150 (guzutia)
guzutia@elgoibar.eus

INFORMAZIÓ GEHIAGO + información

Elgoibara Ikerria
Aita Aguirre Lullugana, 1, 1. ed. |
943 74 07 45
www.elgoibar.eus
ehuztarnak@elgoibar.eus

Udal Libraria
Gobernador, 6
943 74 08 03 /
943 74 07 99
libraria@elgoibar.eus

Plaza mugatuak / plazas limitadas

• Plazen erdiak Ludotekan
• Plazen erdiak on line
edo Elgoibarko Izarran

QR code

Logos: Euzko Lehiaketa, Euzko Lehiaketa, Euzko Lehiaketa, Euzko Lehiaketa, Euzko Lehiaketa

BUON APPETITO

SALENTO
BAR PIZZERIA

Pedro Miguel Urzuzuno, 10 - 20870 Elgoibar
salento_elgoibar@hotmail.com
Facebook/Salento de Carlo

VRTE BERRI ON! 2022

Salentok jai hauek gurekin ospatzera gonbidatzen zaitu
Banaketa egunero: eguerdi eta gauetan
943 740 196

🍷 🍷 🍷



Zentzuz erosi. Ondo informatu zaitetz. Ezagutu zure eskubideak. Baztertu estereotipoak.

Zeu zara zure *influencer* onena.

#KontsumitzenJakin

kontsumoBIDE
KONTSUMORIKO EUSKAL INSTITUTUA
INSTITUTO VASCO DE CONSUMO

Euskadi, auzolana

PLURIKO JAKINARITZA GUBIRNO VASCO

Logo: Euzko Lehiaketa, Euzko Lehiaketa, Euzko Lehiaketa, Euzko Lehiaketa, Euzko Lehiaketa





azaroaren 22tik
abenduaren 5era

Zer iruditzen zaizu “Haurren aurrean, helduok heldu” ekimena? Parte hartzen diharduzu?

Azaroaren 22an aurkeztu genuen *Haurren aurrean, helduok heldu* ekimena Maalako parkean. Bertan egon ziren lau lagunekin egon gara ariketaren gainean duten iritzia eskatzeko.

ITXASO IRAZABAL, hiru umeren ama.....



“Ondo iruditzen zait ekimena, baina uste dut ez dela urtean behin egitekoa, urte osoan egin beharko litzateke. Ohiturak aldatzeko ondo dago ariketa. Askotan irteten gara kalera eta gaztelaniaz egiten diogu jendeari uste dugulako ez dakiela euskaraz, eta gero konturatzen zara badakiela. Niri norbait gaztelaniaz egiten badit lehenengoan, hurrengoan nik ere berari gaztelaniaz egiten diot, pentsatzen euskaraz ez dakiela. Ariketa hau ondo dago familiak elkarren artean ezagutzeko. Seguru sorpresaren bat edo beste hartuko dugula”.

gero konturatzen zara badakiela. Niri norbait gaztelaniaz egiten badit lehenengoan, hurrengoan nik ere berari gaztelaniaz egiten diot, pentsatzen euskaraz ez dakiela. Ariketa hau ondo dago familiak elkarren artean ezagutzeko. Seguru sorpresaren bat edo beste hartuko dugula”.

IZARO ETXEGIBEL, hiru umeren ama.....



“Ariketa garrantzitsua da eta nire ustez lehenago jarri behar zuten martxan. Guraso askok gaztelaniaz egiten dugu haurren aurrean, eta gero gainera, umeei esaten diegu euskaraz egiteko. Batzuetan izaten da gurasoren batek ez dakielako euskaraz, baina beste askotan ohitura kontuagatik hitz egiten dugu gaztelaniaz, eta hori ez dugu ondo egiten. Umeak gainera konturatzen dira, eta esaten digute bere lagunak gurasoekin guk ere gaztelaniaz egiten dugula nahiz eta denok euskaraz jakin. Parte hartzen dihardut, baina Euskaraldian gertatzen den bezala, ohiturak aldatzea da kontua eta hori ez da batere erraza. Beti gaztelaniaz egin dugunarekin euskaraz egitea asko kostatzen da, baina saiatuko gara”.

gero konturatzen zara badakiela. Niri norbait gaztelaniaz egiten badit lehenengoan, hurrengoan nik ere berari gaztelaniaz egiten diot, pentsatzen euskaraz ez dakiela. Ariketa hau ondo dago familiak elkarren artean ezagutzeko. Seguru sorpresaren bat edo beste hartuko dugula”.

REBECA ESTEBAN, ume baten ama.....



“Ariketa oso aproposa iruditzen zait. Umeei erakusten diegu hizkuntza, baina hizkuntza ohiturak ez dizkiegu erakusten, eta behintzat gogoeta bat egiteko eta egiten dugunaz kontziente izateko balioko duela uste dut. Bakoi-tzak erabakiko du zer egin, baina behintzat egiten dugun horretaz kontziente izatea garrantzitsua da, izan ere, askotan iruditzen zait gauzak egiten ditugula konturatu gabe. Gu inplikaturatu gaude kontu honetan eta bai, parte hartzen ari gara”.

gero konturatzen zara badakiela. Niri norbait gaztelaniaz egiten badit lehenengoan, hurrengoan nik ere berari gaztelaniaz egiten diot, pentsatzen euskaraz ez dakiela. Ariketa hau ondo dago familiak elkarren artean ezagutzeko. Seguru sorpresaren bat edo beste hartuko dugula”.

NEREA GOROSTIZA, hiru umeren ama.....



“Beharrezkoa da ariketa. Gurasoen artean joera handia dago gaztelaniaz egiteko, eta hizkuntza ohiturak nahiko hankamotz ditugula iruditzen zait. Umeekin euskaraz egiten dugu, baina beharrezkoa da umeei erdua ematea eta haien aurrean euskaraz egitea. Euskara bermatu eta bultzatu behar dugu. Nik eta nire familiak badihardugu parte hartzen”.

gero konturatzen zara badakiela. Niri norbait gaztelaniaz egiten badit lehenengoan, hurrengoan nik ere berari gaztelaniaz egiten diot, pentsatzen euskaraz ez dakiela. Ariketa hau ondo dago familiak elkarren artean ezagutzeko. Seguru sorpresaren bat edo beste hartuko dugula”.



SARA IRIONDO OTAÑO

Gizarte hezitzailea

Nik ez dut ezer ere egin

Etxetik irten eta igogailua jaitzarazi du. Ateak ireki direnerako bi bizilagunak ikusi ditu eta barrura sartzeaz dela K-k galdera bat egin dio: nora zoaz horrela jantzita? Berak, bere bidea jarraitu eta aurrera pausoa eman du. O bizilagunak ez du ezer ere esan bidaiak iraun duen bitartean, bost bat aldiz begiratu dio goitik behera, besterik ez.

Gero, bere adinekoak diren N eta P-ren albotik pasatu da. Bat-batean, N isildu egin da, P harritu. N-k begirada bularretara iltzatu dio. P-k N-ren begi-

rada jarraitu du eta bera ere bularretara iritsi da, aurpegirantz jo du eta de-rosotasuna sumatu du, instant batean bularraldera itzuli da eta segituan N-ri begiratu dio berriz. Irribarre egin diote elkarri. P-k pare bat bizkarreko eman dizkio N-ri: A zelako kabroia! Barrez leher-tu dira orduan.

Ondoren, errepide alboko espaloitik jarraitu du oinez eta motorrean ziztu bizian zetorren ezezagunak abiadura jaitsi du. Metro batzuk egin ditu bere alboan, motel. Ostean, abiadura igo eta zaldia-rena egin du bozina jotzen duen bitartean. Espaloia-rena beste aldetik L-k garrasi egin dio: eman gogor!

Jarraian, I, Z eta E ikusi ditu urrutian. 18 pertsonaz osatutako whatsapp talde berdinean daude laurak. Hk askotan kon-

partitu izan ditu jendeari ezkutuan eta inolako baimenik eskatu gabe ateratako argazkiak, hurbileko jende ezezagunaren irudiekin sortutako memeak, txiste kapazitistak, irudi transfoboak edota "violación-grupo" moduko izenburua duten bideoak ikusteko orrialde pornografiko-etarako loturak. Z-k beste talde batzue-tan konpartitzen ditu "begira zer bidali didaten" batez lagunduta eta E-ren erantzuna barrez dagoen malkodun emoji sorta bat izaten da.

Azkenean, kale kantoia pasatu du eta iritsi da plazara. Ostegun iluntzea da eta jende mordo bildu da aurten ere elkarretaratzean. Bertan ikusi ditu gurutzatu dituen guztiak, K-O-N-P-L-I-Z-E, "ezer ere egin gabe" larderia oinarritutako mekanismo oso bat sostengatzen dutenak.

"Ostegun iluntzea da eta jende mordo bildu da aurten ere elkarretaratzean"

 <p>BARREN</p> <p>ARGITARATZAILEA:</p>  <p>ELGOIBARKO IZARRA Sustututako Topagunea</p>	<p>Aita Agirre Kulturgunea, 3, 3. ezk. - 20870 ELGOIBAR 943 744 112 Publizitatea: 943 743 704 barren.publi@elgoibarkoizarra.eus barren@elgoibarkoizarra.eus www.barren.eus</p> <p>BARRENek bere gain hartzen du espazio arazoengatik iragarkiak lekuz aldatzeko eskubidea. BARRENek ez du bere gain hartzen Iritzia, Hitz eta klik eta eskutitzak ataletan adierazitako erantzukizunik.</p> <p>KOORDINATZAILEA Ainhoa Andonegi KAZETARIAK Ainhoa Andonegi, Asier Orbea, Ainara Argoitia HIZKUNTZA ARDURADUNA Ainara Argoitia PUBLIZITATEA Leire Rubio MAKETATZAILEA/DISEINATZAILEA Zaloe Amaiz ATARI DIGITALEKO ARLO TEKNIKOAREN ARDURADUNA Aitor Lauzirika ADMINISTRARIA Amaia Arrizabalaga KOLABORATZAILEAK Eire Vila, Manu Sanchez, Iosu Juaristi, Iñigo Lamelas, Edurne Izagirre, Paula Heras, Enez Ezenarro, Ane Astiazaran, Irati Agirreazaldegui, Jone Olazola, Juan Luis Mugertza, Izaro Etxegibel, Iñigo Otaño, Iñaki Goitia, Jose Ramon Cabrera, Alex Segade, Ane Kortaberria, Sara Iriondo, Asier Guisasaola INPRIMATEGIA Gertu Koop.E. TIRADA 4.885 ale LEGE GORDAILUA SS-1.038/92 ISSN 1138-1855</p>	<p>BABESLEA:</p>  <p>ELGOIBAR URDIA AYUNTAMIENTO</p> <p>LAGUNTZAILEAK:</p>  <p>MENDIARO 1981</p>  <p>Gipuzkoako Foru Aldundia</p>
---	---	--



Zuen kexak, galderak edo txaloak bidaltzeko: barren@elgoibarkoizarra.eus ☎ 943 744 112 📞 688 634 044



Santa Ana kale amaieran hondatuta dago asfaltoa: "Santa Ana kaletik Maltzagarako bidegorria hasten den tokiraino asfaltoa hondatuta dago. Zuloz beteta dago lurra, eta oinezkoentzat traba handiegirik sortzen ez badu ere, gurpildun aulkian ibiltzen direnentzat oso arriskutsua da. Sarritan zuloan trabatuta geratzen dira, eta patineteekin joaten diren umeak ere behin baino gehiagotan erori izan dira muturrez aurrera, erroberak zuloan sartzearen ondorioz. Eskertuko genuke lehenbailehen konpontzea".



Pedro Migel Urruzuno kaleko edukiontzien ingurua zikin-zikin egoten da: "Ez da ez lehenengo eta ezta bigarrenengo aldia ere Pedro Migel Urruzuno kaleko zabor edukiontzia modu honetan ikusten ditugula! Arazoa ez da edukiontzia beteta egoten direla, ez. Arazoa da zaborra tolestu edo txikitzeak lana ematen duela eta askoz errazagoa dela lurrian lagatzea. Jendeak ez du lan hori hartzen, eta dena lagatzen dute kanpoan. Ez dago eskubiderik!".



Txakurrek etxeko atarian egiten digute pixa: "Egunero-egunero aurkitzen dut etxeko ataria txakur pixez beteta, eta mesedez eskatu nahi diet txakur jabeei errespetu apur bat. Berdegunea dute gure ataritik bi metrora, eta nahi badute han egin dezatela, baina ez horman. Zikina da, usain txarra sortzen du eta gainera hormari berari ere kalte egiten dio. Zaindu ditzagun herria eta herritarrak".



Urazandirako igogailuaren ondoan ur zikinen hodiren bat hondatu da: "Urazandiko igogailu berria dagoen inguruan ur zikinen hodiren bat edo hondatu dela dirudi, eta egunetan ari da ur zikina irteten. Usain txarra dago ingurune horretan, eta itxura eskasa hartzen ari da ingurune hori. Ez dakigu igogailuaren obraren ondorioz izan den ala beste arrazoiren batengatik, baina dagokionari eskatu nahi diogu konpondu dezala lehenbailehen".

Piktogramak margotu dituzte zebrabideetan, autismoa dutenen autonomia sustatzeko



Erabileria handiena duten herriko 40 bat oinezkoen pasabidetan piktogramak margotuko ditu Elgoibarko Udalak, udalerriri irisgarriagoa eta inklusiboagoa lortzeko helburuarekin. Piktogramena Autismoaren Espektoaren Nahasmendua (AEN) duten pertsonen erabiltzen duten komunikazio sistema da, eta ahozko edo idatzizko kanalak baliagarriak ez direnean, irudiak erabiltzen dituzte inguru ulertzeko. Izan ere, AEN duten pertsonen banda zuri-beltzek ez diete segurtasunik ematen, bidea gurutzatzerakoan ez dutelako mezua ulertzerik lortzen. Aldiz, piktogramen esker ulertzen dute mezua. Hori dela eta, oinezkoen pasabideetan "gelditu", "begiratu", "autoa dator" eta "gurutzatu" hitzak irakur daitezkeen piktogramak margotuko dituzte.

Debarreneko pintxorik onenaren saria lortu du Viento Surrek 'Bacalaos Alkorta' Pintxo Lehiaketan

'Bacalaos Alkorta' Pintxo Lehiaketaren laugarren ekitaldiko finala jokatu zuten zapatuan Eibarren, eta Elgoibarko Viento Sur gastroteka ordezkatu zuen Dorelin Castillok bi sari irabazi zituen: Debarreneko pintxorik onenaren saria eta KMO produktuen aurkezpen onenaren saria. Gipuzkoa, Bizkaia, Araba eta Nafarroako bakailao pintxo lehiaketan aurtengo irabazleek hartu zuten parte, eta Irungo Danako jatetxeko sukaldaria den David Rodriguezek aurkeztutako pintxoari eman zioten lehen saria. Sari nagusiaz gainera, Bakailaoaren tratamendu onenaren saria ere irabazi zuen.



Kontzezio Azoka bertan behera laga dute

Abenduaren 8an ziren egitekoak aurtengo Kontzezio Azoka Mendaron, baina pandemiaren bilakaera ikusita, ospakizun guztiak bertan behera lagatzea Mendaroko Udalak erabaki du. "Covid-19 pandemiaren egungo egoerak eragotzi du azoka ospatzea. Izan ere, Udalak bat egin du gaur egun dauden prebentzio neurriekin: jende pilaketak saihestu nahi ditugu, herriko egoera okerrera joan ez dadin", adierazi dute Mendaroko Udaleko arduradunek.

Lau lanpostu betetzeko deialdia egin du Udalak

Elgoibarko Udalak 97.143,73 euro jaso ditu enplegua sustatzeko toki-ekintzetarako 2021eko diru-laguntzen barruan, eta horri esker, lau lanpostu betetzeko deialdia egin du, Lanbiderekin elkarlanean. Horietatik hiru, lanbide aniztatarako langileak kontratatzeko izango dira, eta laugarrena auzoak eta landa-eremuak zaintzeko. Lanbide aniztatarako langileen eginkizunak dira hiri-altzarien mantentze edo birjartze lanak, garbiketa, pintura eta kontserbaziorako beste lan batzuk egitea. Lanaldi osoko lau hilabeteko kontratua eskaintzen da. Bestalde, auzoak eta landa-eremuak zaintzeko langilearen betebeharrak dira landa-eremuren barruko espazio publikoak eta auzo, baserri, bide eta bidezidorretarako sarbideak berreskuratzea, kontserbatzea eta hobetzea, landa-eremuko lorezaintza, igeltserotza, pintura edo arotzeriako oinarrizko lanen bidez. Lanaldi osoko lau hilabeteko kontratua eskaini du Udalak. Lanpostu guztietan aldi baterako lan-kontratua egingo da. Izena eman nahi dutenek Elgoibarko Lanbideko egoitzan edo Lanbideren webgunean egin dezakete.

Norbanakoek sortzen duten hondakin kopurua gutxitzeko sentsibilizazio kanpaina hasi du Mankomunitateak

Hondakinen Prebentziorako Europako Astearekin bat eginez, hondakinen sorrera gutxitzeko sentsibilizazio kanpaina aurkeztu du Debabarreneko Mankomunitateak. Nahiz eta hondakinen gaikako bilketa eta birziklatzea geroz eta handiagoa izan, 2016tik honako datuen arabera, pertsona bakoitzak sortzen duen hondakin kopurua handituz doa: 2020an pertsonako tona erdi hondakin sortu zen Debabarrenean, guztira ia 32.000 tona. Sentsibilizazio kanpainaren baitan, Debabarreneko zortzi herriak bisitatuko dituzte arduradunek, eta, besteak beste, esku-orri informatiboak banatuko dizkiete herritarrei norbanakook sortzen dugun hondakin kopuari buruzko datuekin. Esku-orri horietan eskualdeko herrietako plazak zaborrez bete dituzte, irudikatze eskualdean sortzen den zabor kopuruarekin herriko plaza bi aldiz bete daitekeela. Era berean, hondakin gutxiago sortzeko zazpi ekintza proposatu dituzte: Erabilera bakarreko materiala saihestea, plastikoan ontziratutako eta gain-bildutako elikagaiak ekiditea, bigarren eskuko dendak erabiltzea, materialak konpontzea eta berrerabiltzea, telazko poltsak erabiltzea, hondakinak egoki birziklatzea, eta hemen ekoiztutako elikagaiak erostea.



Egin dute Elgoibar Klik plataformako azaroko zozketa

Elgoibarko Udalak, Txankakua Elgoibarko Merkatariak elkartearekin batera, Elgoibar Bizi-Bizixa erosketa-bonuen azaroko zozketa egin du, azaroaren 10etik 18ra www.elgoibarklik.eus webgunean eta sare sozialetan erosketak egin dituztenen artean. 160 lagunek hartu dute parte zozketan, eta hauek izan dira saridunak: Nahia Abad, Eider Mujika, Elena Barua, Joana Ibarluzea, Susana Mancisidor eta Olatz Agirre.

Gazteriaren egoeraren diagnosian sakontzeko

Mendaroko nerabe eta gazteei zuzendutako saio parte hartzailea egingo dute bihar

Mendaroko Udalak nerabe eta gazteen egoeraren gaineko diagnostikoa egiteko prozesua abiatu du, Elhuyar Aholkularitzak lagunduta, eta 15 eta 35 urte bitarteko mendaroarren dei egin die prozesuan parte hartzeko. Bihar egingo dute saio parte hartzailea, Mendaroko nerabe eta gazteen errealitatea euren ahotik entzun eta ezagutzeko. 11:00etatik 13:30era izango da, Mendaroko Gaztelekuan. Interesatuek mendaro.eus webgunearen bitartez eman behar dute izena.

Elgoibarko 19 odol emaile omenduko dituzte domekan

Gipuzkoako Odol Emaileen Elkarteak antolatuta, Gipuzkoako odol emaileak omenduko dituzte domekan, eta horien artean, 19 elgoibartar. Jubilatuen Biltokian egingo dute ekitaldia.

- **25 aldiz eman dutenak:** Iñigo Ariztondo, Iker Arrillaga, Ivan Conde, Aitor Etxeberria, Santiago Gonzalez, Gorka Intxausti, Jose Manuel Rodriguez, Fernadno Rodriguez, Juan Cruz Sasiain, Ainara Uranga, Alexander Valero eta Andrea Zubiaurre.
- **40 aldiz eman duena:** Olatz Fuente.
- **50 aldiz eman dutenak:** Benito Atrio, Fernando Mendez eta Xabier San Martin.
- **60 aldiz eman dutenak:** Eloisa Irureta eta Lourdes Uranga.
- **75 aldiz eman duena:** Jesus Alvarez.

24/7 Plataformak sinadurak bilduko ditu anbulatorioan larrialdi zerbitzua berrezartzea eskatzeko

Anbulatorioko larrialdi-zerbitzua 24 orduz eta asteko zazpi egunetan martxan jarzea eskatzeko sinadura bilketa egingo du 24/7 plataformak. Abenduaren 2an, 9an eta 16an irtengo dira kalera plataformako ordezkariak, sinadurak biltzera: Goizez, Kalebarren plazan eta anbulatorioaren aurrean egongo dira 11:00etatik 12:30era; eta arratsaldez, Kalegoen plazan eta Maalan, 19:00etatik 20:00etara. Aizu! Ostalarien elkarteak eta herriko hainbat saltokik erebat egin dute sinadura bilketa honekin, eta horri esker, Elgoibarko tabernetan eta dendetan ere sinatu ahal izango da. Urazandiko auzo elkarteak, bestalde, auzoan bertan jasoko ditu sinadurak.

Plataformako ordezkariak salatu dute Elgoibarko anbulatorioak jasan dituen murrizketak "ugariak eta jarraiak" izan direla: "Duela bi urtera arte, anbulatorioak larrialdietarako zerbitzua eskaintzen zuen 20:00ak arte, eta orain, 17:00etan ixten dute asteleheneetik barikura, eta asteburuetan itxita egoten da". Murrizketa "nabaria" dela diote, herritarren eskubideen eta bizi kalitatearen kontra. 24/7 plataformatik herritarrei dei egin diete sinadura bilketan parte hartzeko, "beharrezkoa delako anbulatorioko larrialdi zerbitzu iraunkorra berreskuratzea".



'Jira Bueltan' DVD-liburuxka banatuko du Udalak ikastetxeetan

Elgoibarko Udalak, Badihardugu elkartearen *ahotsak ikasgelan* proiektuaren baitan, eta Eskoriatza, Aretxabaleta eta Eibarko Udalekin elkarlanean, *Jira bueltan* izeneko liburuxka eta DVDa argitaratu zituen 2018ko abenduan. Lau herrietako bederlatzi ikastetxetako 300 haur baino gehiagok hartu zuten parte egitasmo honetan, tartean Herri Eskolako eta Elgoibar Ikastolako haurrek. 51 kanta eta jolas jaso zituzten guztira: 14 jolas, 30 kanta-jolas eta 7 abesti. Ikasturte honetan LH1eko ikasleen artean banatuko dute liburuxka. Nahi duenak online ere eskura ditu liburuxkako kanta eta jolas guztiak Ahotsak Ikasgelan webgunean: <http://ikasgelan.ahotsak.eus/fitxak/>

Emakumeenganako Indarkeriaren Kontrako Egunari lotutako hainbat ekintza egin dituzte astean zehar

Elgoibarko Udaleko Osoko Bilkurak Emakumeenganako Indarkeriaren Kontrako Egunari lotutako adierazpen Instituzionala onartu zuen eguaztenean, eta horri lotuta hainbat konpromiso hartu zituen Udalak. Bestek beste, indarkeria bikarioa agerian jarzea, adingabeak babestea, eta biktimen eskubideak eta haien ahalduntzea erdigunean jarzea. Azken batean, Udalak borroka feministaren aldeko konpromisoa berretsi du, eta horretarako hainbat ekintza egin dituzte astean zehar. Aita Agirre kulturean eskola-umeen marrazkiak jarri dituzte, hitzaldiak egon dira eta atzo, elkarretaratzea eta manifestazioa egin zituzten, Uluka batukadaren doinuek lagunduta. Mendaron ere kontzentrazioa egin zuten atzo, eta bihar *Evaren alabak* antzerkia taularatuko dute San Agustinen, 19:00etan.



Astelehenean zabalduko dute neguko oporraldirako izena emateko epea

Eguberrietako oporraldiari begira, negulekuak antolatu dituzte Elgoibarko Izarrak eta Ludotekak elkarlanean, Udalaren laguntzaz, eta astelehenean zabalduko dute izena emateko epea. HH5etik LH6ra arteko umeentzako eskaintza prestatu dute, eta ekintza abenduaren 28tik urtarrilaren 5era izango dira. HH5ekoak eta LH1ekoak Aquariumera joango dira abenduaren 28an, eta urtarrilaren 4an Katamixarraren basoa ezagutzeko aukera izango dute. LH2 eta LH3koek Basauriko abentura parkera egingo dute irteera abenduaren 27an, eta urtarrilaren 3an Katamixarren basoan gure fauna eta naturarekin esperimentatuko dute. Azkenik, LH4tik LH6ra artekoak Iruñeko salting-era joango dira abenduaren 29an, eta urtarrilaren 5ean altxorren bila jardungo dute Katamixarren basoan.

Interesatuak azaroaren 29tik abenduaren 3ra arte eman dezakete izena. Arduradunek jakinarazi dute plaza mugatuak izango direla, eta izena emateko prozesuan ere aldaketak daudela: Plaza erdiak online bidez beteko dituzte, eta beste plaza erdiak aurrez aurreko izen-emate-erako utziko dituzte, horien erdiak Elgoibarko Izarran hartuko dituzte eta gainerakoak, Ludotekan. Diru-laguntzak eskatzeko epea ere abenduaren 3an amaituko da. Informazio gehiagorako Elgoibarko Izarrara (943 741 626) edo Ludotekara (943 748 883) deitu daiteke.

Bihar itxiko dute jostailu erakusketa

Eguberriei begira jostailu didaktikoak aurkezteko erakusketa antolatu dute Atxutxiamaiak, Ludotekak eta Gaztelekuak Udalaren laguntzarekin, eta bihar itxiko ditu ateak. Gaur arratsaldean 17:00etatik 19:30era egongo da zabalik, eta bihar, 11:30etik 14:00etara. 0-8 urte bitarteko umeentzako jolasak Kultur Etxeko erakusketa gelan jarri dituzte, eta 9 urtetik aurrerakoak, berriz, Aita Agirre kulturgunean.



180.000 euroko inbertsioa landa bideak konpontzeko

Elgoibarko Udalak amaitu ditu aurtengorako aurreikusita zituen landa eremuko lanak, eta guztira, 180.000 euroko inbertsioa egin du landa bideak konpontzeko. Herriko hiru auzotan egin dituzte asfaltatze lanak: Idotorben, Urruzunon eta Aiastian.

Idotorben, esaterako, Legardako bideak asfaltatzeko lanak egin dituzte, eta hango horma ere konpondu dute. Guztira 30.560,92 euroko aurrekontua izan dute lan horiek. Urruzuno auzoan, aldiz, Urruzuno Berri eta Azkarate baserrien inguruko bideak konpondu dituzte, 20.048,66 euroko inbertsioarekin. Azkenik, Aiastian, Bertoso eta Oanagusi baserrien inguruan egin dituzte asfaltatze lanak. Horretarako, 75.451,50 euro inbertitu dituzte.

Udaletik jakinarazi dutenez, asfaltatze lan horiez gain, beste hainbat hobekuntza ere egin dituzte landa inguruetan: hainbat bide konpondu dituzte, eta horrekin batera, postontzi berriak eta babes-hesiak jarri dituzte Idotorben, Urruzunon eta Sallobenten.

Mendaroko Udalak herriko basoen azterketa egingo du

Mendaroko Udalak herriko basoen azterketa egin eta etorkizunerako lan ildoak finkatuko ditu, Gipuzkoako Basoa elkartearekin lankidetzan. Helburua da bertako basoak sustatzea, eta ildo horretan, Udalak herriko lursailetan hostozabalen landaketak gauzatu nahi ditu, baso jabeekin hitzarmenak eginez. Lursail horiek identifikatzeko ondorengo irizpideak hartuko dituzte kontuan: Jadanik hostozabalen basoak dauden guneez, lursaila hutsik edo abandonaturik egotea, azken mozketak gertu duten landaketak egotea eta Intsinis pinuaren kasuan, gaixoturik dauden landaketak izatea. Irizpide horien arabera erabakiko dute zona bakoitzerako zein den espezierik egokiena.

Mendaron, landa lur katastroaren arabera, baso erabileraren azalera 2.011 hektareakoa da, eta 723 partzela ezberdinez osatua dago, azpi-partzelak kontuan hartu gabe. Lan honetarako 7.500 euro +BEZ erabiliko dute.

▶ AITZIBER OLAIZOLA ARAKISTAIN

BOLARIA

Euskal Herriko Hiru Txirlo Bola Joko Txapelketa irabazi du Aitziber Olaizola (Elgoibar, 1974) San Migelgo taldekide guztiak atzera utzita. Historian lehen aldiz, emakumezko batek jantzi du txapela, teknika eta indarra baliatuz txapelerako gosea engainatuz. Bikoteka ere lehen saria eskuratu du bola jokora inguratu zuen senarrarekin. Gipuzkoako onena bera izan zen baita emakumezkoetan ere eta taldeka bigarren saria. Ibilbide luzea egin du baina herrian bolatokia izatea nahi luke jende gehiagok kirol honi segitzeko.

- IRATI AGIRREAZALDEGI -



“Bolatan emakumeok irabazteko aukera bera dugu gizon gehiago ibili arren”

◆ Euskal Herriko txapela lortu zenuen Azpeitian eta sari hori lortu duzun lehen emakumea izan zara. Zer sentitu duzu?

Ilusio handia. Beti pentsatu izan dut irabazi nezakeela, baina oso zaila iruditzen zitzaidan. Beti hamargarrenetik atzera gelditzen nintzen eta noizean behin laugarren postura hurreratu arren, “ez, ezinezkoa da” esaten nuen. Baina aurten banuen zerbait egin nezakeen errezeloa. Hiru urtez ia bota gabe ibili naiz besoko minagatik eta semeen futbol partidetara joaten nintzelako. Txapelketan, lehen bolatokia hiru kale egin nituen, baina itxura ona hartu nion kontuari. Hala ere, azken egunera arte ez nuen lortu, nahiko urruti neukan, baina irabazi nuen.

Jendeak zoriondu egin nau eta taldean ere pozik, denak atzera utzi arren. Azken bost urteetan San Migelgo taldeko lauk txapela janztea esanguratsua da. Bolatokia iristen garenean esaten dute: “hemen datoz gorritxoak” (taldeko kamisetarengatik). Adarra jotzen digute, baina denak gure zain egoten dira, txapelketa guztietan azkenetan botatzen dugulako. Lehia badago, baina ez gogorra.

◆ Eta nola irabazi zenuen azken saioa?

Guztiak jo nituen, bederatzia, eta lehen postura iritsi nintzen, beste batekin berdinduta, hortaz, berdinketa hausteko jokoa egin genuen eta berak bost jo zituen eta nik sei. Emozioa azken momentura artekoa izan zen. Azken bolatokia lehen postuan eta txirlo asko jota iritsiz gero ez dauka zirrara bera.

◆ Bikotekako saria ere senarrarekin irabazi duzu.

Bai, orain arte beste batzuekin jokatu izan du taldean bazirelako hobeak, baina aurten, beti bere bikote izaten denak ezin zuen eta elkarrekin jokatu dugu. Saria irabaztea berezia izan da.

◆ Beste sari asko irabazitakoa ere bazara, ezta?

Hau hirugarren txapela izan da. Gainontzekoak jaietako bola-jokoetako sariak izan dira. Bost euro ipini eta lehenengo geldituz gero, orduan txapela irabazten denetakoa. San Roken orain dela 20 urte atera nuen eta orain dela 23 Aramaion, Untzillan. Han gauza bitxi bat gertatu zitzaidan: Emakume gutxi jokutzen genuen, pare batek-edo. Bi pertsona geunden berdinduta eta hautsi egin behar genuen berdinketa. Horrelakoetan egin ohi da biek

hitz egin eta dirua erdibanatu, txapela lehenak jantzi arren. Gizon hari proposatu nion dirua erdibanatzea eta ezetz esan zidan, pentsatu zuen nik ez nuela berriz joko eta azkenean nik irabazi nuen sari nagusia.

◆ Txapeldun izatera iritsi zara, baina nola hasi zinen bola jokoa?

Senarraren eraginez. San Migeldarra da eta bola jokorako oso zalea izan da beti. Beraientzat bolatan aritzea jolas bat gehiago izan da. Ni hasieran, lehen bost-sei urtetan, ikustera joaten nintzen eta gero hasi nintzen parte hartzen. Jadunik 25 urte izango dira bolatokitian parte hartzen dudala eta federatuta nagoela hogeitatu bat urte.

◆ Nolako izan zen parte hartu zenuen lehen aldi hura?

Pentsatzen nuen posible zela, emakumeak berdinekin jokatu dezakegu, bolatoki batzuetan, ez guztietan, baina gizonen pare aritu nitekeela.

◆ Zergatik bolatoki batzuetan bai eta besteetan ez?

Bolatoki guztiak desberdinak dira. Denak lurrezkoak dira baina aldapatxoa daukate eta bola borobila ez denez lehenago jaisten da eta indar guztiz botata ere, bolatoki batzuetan ez zitzaidan bola txirloak botatzera iristen. Beste batzuk lasaiagoak dira. Adibidez, Elgoibarren, San Migelgo eta San Pedroko bolatokiak indarrarekin botatzekoak dira eta San Roken eta San Lorentzon indar gutxiagorekin ere jo liteke.

◆ Zuri zein bolatoki gustatzen zaizu?

Normalean Azpeitikoan jotzen dut gehien, zergatik ez dakit, baina hala suertatu zait, beharbada lauagoa denez bolak errazago sartzen dira. San Roken ere jo izan ditut. Bolatokiaren arabera hobeto moldatzen naiz, baina norberak kontrolatu behar du bola ez bolatokiak.

Bolatokiak baserri giroko auzoetan egoten dira gehienetan eta txapelketa udaberrian izaten denez, arratsalde pasa polit bat egiteko toki ederrak izaten dira denak.

◆ Bolatokiak bai, baina materialak ba al du garrantziarik?

Txapelketa bakoitzerako bola bat zozkatzen da eta hiru txirloekin bolatoki bolatoki txapelketan barrena ibiltzen da. Beraz, denok material berdinarekin jokatzen dugunez pareko aritzen gara.

◆ Bola jokorako zer da garrantzitsuagoa indarra ala teknika?

Biak, bolatokiaren arabera. Teknika denetan, indarrez bota arren behar da, fisiko handirik, ordea, ez.

◆ Beste kirol askotan ez bezala bolatan emakume eta gizonen maila berean jokatzen duzue. Hori horrela izan eta zuk txapela irabazteak emango zuen zeresanik.

Lehen ez zegoen emakumezkoen garaikurrik, beraz, nire helburua zen txapela lortzea, gizonen irabazten zutena, baina oso zaila zen. Emakumeen garaikurra jarri zutenean hasi nintzen hori irabazten, sari nagusia izan ez arren zerbait bazen behintzat. Baina harekin ere ez nengoen konforme, txapela nahi nuen eta txapela bakarria dago, irabazten duenarentzat, emakume edo gizona izan. Hala ere, gizonen gaintik egiteak poztu nau, beraiek

neskak baino gehiago direlako, baina aukera berdinak dauzkagu.

◆ Nola prestatzen zara?

Ez dugu entrenamendurik egiten, batez ere Elgoibarko kaleetan bizi naizelako eta bolatokiak urrutik dauzkagulako. Gainera ez gara taldekook gelditzen eta bakarrik ezingo nuke, bolak bueltatzen norbait behar da, nekagarria baita bat edo bi bakarrik ibiltzea. Kalean beharko litzateke bolatokia, entrenatzeko ezezki kirol zahar hau jendeak ezagutzeko. Gero eta gutxiagok dihardugu bolatan eta gazteak ezagutzen eta jokoa hasiko balira txapelketetan parte hartzeko ere hobea, bestela galduko da.

◆ Umeak ez dira bolatan aritzen, ezta?

Ez, gurasoekin joaten diren ume horiek bakarrik, auzoetara bestela ezin dira iritsi.

◆ Zure semeek jokatzen dute?

Juleni asko gustatzen zaio eta orain dela urte batzuk Asola Berri elkarteak antolatutako txapelketan Udalak emandako 500 euroko saria irabazi zuen. Jon utzita dago. Baina haiek ere ordu asko pasatutakoak dira San Migelen bolatan. Orain haiek futbola laga dute eta nik ere bolotarako asti gehiago izango dut.

◆ Hurrengo non jokatuko duzu?

Lehendakari saria izango dugu Markinan, Hiruzubietan, urte osoko amaierako jokoa izango da. Jokoa ezberdina da, kanporaketa bidez egiten da eta jo ezean, kalera, ea zeinek gehiago iraun. Denak adi egon behar izaten gara eta giro berezia sortzen da. Bolatokia probatzera joango gara eta gero auskalo zer gertatzen den.

◆ Aurrerantzean bola-jokoak izango du jarraipenik?

Galtzorian dago. 70 lagun inguru aritzen gara eta gehienak 45etik gorakoak dira. San Migelen garai batean hiru talde geneuzkan baina orain bakarria, hasieran izena eman zuten gazte pila batek laga egin dutelako eta betiko "zaharrok" jarraitzen dugu. Gazteak falta zaizkigu.



Galduan eman: Negozioren batean, galtzen irten.
Zenbat da kontua? Eta hainbeste. Bueno, etxuek galduan emango eurak ere, e!

Santa Zeziliaren omenezko ospakizun gehiago izango dira datozen egunetan

Azaroaren 22an Santa Zeziliaren Eguna izan zen eta musikarien zaindaria izanik, musikaren inguruko ekitaldirik ez da falta izan asteen. Elgoibar Ikastolako umeak kantura irten ziren astelehen goizean eta arratsaldean Inazio Bereziartua Musika Eskolako txaranga eta dultzaineroak aritu ziren kalean; martitzen arratsaldean, berriaz, trikitilarien kalejira izan zen.

Domekan, azaroaren 28an, Udal Musika Bandak kalejira egingo du 9:45ean eta gero kontzertua izango da 12:30ean Herriko Antzokian. Gorka Mujika zuzendari dutela honako piezak eskainiko dituzte: *Slim trombone*, *Elementos tribales*, *Monte Cervino* eta *Homenaje a Morricone*.

Bestalde, azaroaren 29an eta 30ean Inazio Bereziartuako auditoriumean kontzertu bereziak egingo dituzte 19:30ean. Mendaron ere azaroaren 21ean Ameikutz Musika Eskolak antolatuta xistulariek kalejira egin zuten ospakizun modura eta asteazkenean ere trikitilari eta panderojoleek abesbatzetako ikasleekin batera musika eta kantuz jantzi zituzten herriko auzoak.



Elgoibar



Mendaro

Ipuin lehiaketa antolatu du Mendaroko Udalak

Mendaroko Udalak Euskarazko Ipuin Lehiaketa antolatu du, haurren eta gazteen irakurzaletasuna eta sormena bultzatzeko asmoz. LH1, LH2, LH3 eta LH4 mailakoek ipuin bat irakurri eta istorioa marrazki baten bidez irudikatu beharko dute. LH5, LH6, DBH1 eta DBH2koek, irudi bat oinarri hartu eta ipuin bat idatzi beharko dute euskaraz, gehienez bi orrialdetan; eta DBH3 eta DBH4koek, komikia egin beharko dute bunbuiloak betez. Lanak abenduaren 10a baino lehen entregatu behar dira Mendaroko Udalera eramanda; posta arruntez edo kultura@mendaro.eus emailera idatzita. Tablet bana emango dute sari maila bakoitzeko eta parte hartzaile guztiek oroigarria jasoko dute.

Hizkuntza ohiturei buruzko bi hitzaldi datorren astean

Familiak euskararen eta kulturartekotasunaren bidez elkartzeko 'Euskarara hurbiltzen' ekimena abian da. Herrira etorri berri diren familiei edo euskaratik urrun daudenei harrera hizkuntzatik egitea da helburua. Horretarako euskara erdigunean ipiniz herriko familia euskaldunekin harremanetan jarriko dira arduradunak. Familien arteko harremanak sortzeko aukerak izango dituzte, elkarbizitza berdintasunean eraikiz, euskarara hurbilduz eta kohesiorako hizkuntza euskara izateko pausuak emanez. Egitasmoaren harira bi hitzaldi antolatu dituzte datorren astetarako. Aita Agirre kulturgunean izango dira 17:30ean. Azaroaren 29an *Euskara bidegurutzean: eleaniztasuna eta hizkuntza ohiturak zertan lagundu seme-alabei?* eta 30ean *Disfrutando de los idiomas*. EBETeko Arrate Gisapolak emango ditu. Hitzaldiek iraun bitartean umeentzako zaintza zerbitzua egongo da aurrez www.elgoibarkoizarra.eus webgunean izena ematen dutenentzat.



▶ **ANNE
ETCHEGOYEN**
ABESLARIA

Anne Etxegoyen (Saint Palais, 1980) abeslariak estreinako aldiz abestuko du Elgoibarren gaur iluntzeko kontzertuan. 'Emazte' bere azken laneko kantuak eskainiko ditu batik bat, emakumeen inguruko gaiak baliatuz sortu duena. Abesteko baliatzen duen ahots finez erantzun dizkigu bere kontzertuari buruzko galderak.

- IRATI AGIRREAZALDEGI -

“Emakumearen errealitatea islatu dut azken diskoko abestietan”

♦ Oraingoa izango da Elgoibarren emango duzun lehen kontzertua, ezta?

Bai, hala da. Biziki pozik nago interesgarria baita eszenatoki berri batera joatea, hegoaldera.

♦ Zer eskainiko duzu Elgoibarko emanaldian?

Azken diskoa aurkeztuko dut, itxialdia baino lehen atera genuena. *Emazte* da diskoaren izenburua eta emakumea da gai nagusia.

♦ Emakumea da hortaz diskoaren ardatza?

Emakumearen errealitatea eta gaurkotasuna islatzea da ideia. Emakumearen baitan, baina, askotariko gaiak landu ditugu: maitasuna, etxeko indarkeria, indarkeria sexista, amatasuna... Orain dela bost urte jaio zen nire semea eta sehaska kanta bat egin nion bere etorkizunean pentsatuz. Garai hartan emakumeen eguneroko egoera txarra zen, besteak beste, La Manada kasua zen indarrean; eta munduan ere hainbat herrialdeetako egoera ez zen batere ona. Beraz, parekotasunari buruz hitz egitea nahi nuen eta gizon eta emakumeen arteko berdintasuna aldarrikatzea. Kasu deigarrienek eman didate inspirazioa hori egiteko.

Abestiak euskaraz, gaztelaniaz eta frantsesez kantatuko ditut, baina gehiengo euskaraz.

♦ Gaiak horiek dira bai, baina zein musika mota entzungo du kontzertura joaten denak?

Folk doinuak dira gureak, ikutu flamenkoarekin. Gure gita-

rra-jolea flamenkoa izanik, nahastea egiten dugu. Diskoan nire musikariek eta gizonetako abesbatza txiki batekin grabatu nuen arren, Elgoibarren gitarra-jole flamenkoarekin bakarrik izango naiz, formula intimista batean. Ahotsa, nirea altua dela diote, baina azken lanean beheko notetan ere aritu naiz.

♦ Azken diskoko abestiez gain besterik ere eskainiko duzue?

Kontzertua nahasketa bat izango da. Batez ere azken diskoko kantuak izango dira, baina baita tradizionalak ere eta entzuleek ere parte hartu ahal izango dute txaloak jotzen eta abesten.

♦ Beste lanik badaukazu esku artean?

Orain bukatzen ari gara Ainaren bizitzari buruzko dokumental bat. Ainarak ziren Aragoitik eta Nafarroatik Maulera espartin fabriketara lanera joaten ziren emakumeak. Nik aurkezpen lanak egin ditut lekukoekin beren istorioa osatuz eta kantuak ere nireak dira.

♦ Sumatu al duzue Covid-19aren eragina emanaldietan?

Frantzia eta Ipar Euskal Herrian jo genuen eta hegoaldean ere bai aurtengo udan, eta datozen asteetarako lau emanaldi ditugu iragarrita. Sumatu dugu, bai, baina ez da hainbestekoa izan gure kasuan beherakada. Egoera biziki aldatzen ari da musika eta disko sektorean eta ez dakit etorkizuna nolakoa izango den. Baina artistok, antolatzaileek eta produktoreek behariko dugu etorkizuna nolakoa izango den jakitea, beltza izan daiteke-eta.

Euskararen Nazioarteko Egunaren harira hainbat ekintza antolatu dituzte

Abanduaren 3a Euskararen Nazioarteko Eguna da eta horren harira asteazkeneko udalbatzarrean adierazpen instituzionala onartu zuten. Adierazpenaren bidez, dei egiten diete hiztunei euskara erabilera-eremu berri eta ez formaletan ere erabil dezaten, euskara, bidelagun ez ezik, lanabes eraginkor bilakatzeko.

Elgoibarko Udalak eta Elgoibarko Izarrak hainbat jarduera antolatu dituzte egun horren harira. Abenduaren 1a izango da azken eguna esaldi lehiaketara lanak aurkezteko eta egun berean, 19:00etan, Musika Eskolako auditoriumean *Beltzean Mintzo* dokumentala eta Jon Sarasuarekin solasaldia izango dira. Amerikako zazpi hizkuntza komunitateren egoera erakusten du dokumentalak.

Film emanaldiak ere antolatu ditu Udalak. Abenduaren 3an eta 8an, 19:00etan, *Euskaldunon Egunkaria*-ren itxiera lehen pertsonan bizi izan zuten protagonisten testigantzak jasotzen dituen *Paperezko Hegoak* dokumentala emango dute; eta abenduaren 5ean eta 8an, 16:30ean, *Zutik*, umeentzako filma euskaraz. Herriko Antzokian izango dira biak.

Ikastetxeetan ere egingo dituzte Euskararen Eguna dela-eta hainbat jarduera. Elgoibar Ikastolan Argitxoren antzerkia, ipuin kontalariak, jolasak... Herri Eskolan, berriz, tailer eta jolasez gain, Josefina Sorgina egongo da Haur Hezkuntzako umeekin. Arreiturre Institutuko ikasleek lehiaketak, pintxo banaketa, auresku eta txistu saioa, euskal kirolak, dantza, musika eta mahai jolasak egingo dituzte. Batxilergokoak Herriko Antzokira ikasleen txarangarekin joan ondoren, manifestua irakurri eta dantza, antzerki, kantu eta musika emanaldiak eskainiko dituzte. Ikastetxeetan egingo dituzte ekintza gehienak eta batxilergokoek Herriko Antzokian egin arren ikasle eta irakasleentzat baino ez dira izango. Mendaroko ikastolan ere aste guztian egingo dituzte euskararen inguruko jarduerak.

'Haurren aurrean, helduok heldu' ekimena aurkeztu dute

Azaroaren 22an aurkeztu zuten *Haurren aurrean, helduok heldu* ekimena Maalako parkean. 0 eta 12 urteko umeak eta horien bueltako helduak elkartu ziren Musika Eskolako txarangaren eta dultzaineroen doinuak eta Bertso Eskolako kantuz lagunduta. Ekimenerako identifikagarriak Elgoibarko Izarrak Aita Agirren duen bulegoan daude salgai: lepoan zintzilik jartzekoak (1 €) eta etxeakoak (2 €). Ekimenaren barruan bihar egitekoak ziren ginkana atzeratu egin dute eguraldi txarra iragarri dutelako eta Covid-19aren eraginez. *Haurren aurrean, helduok heldu* ekimena abenduaren 3an amaituko da 18:00etan Aita Agirre Kultur gunean egingo duten jarduerarekin.



Idazle kluba sortzeko deialdia egin dute

Elgoibarko Udalaren Euskara Sailak, Jasone Osoro idazlearekin elkarlanean, Idazle kluba jarri nahi du abian. Orain dela 25 urte Elgoibarko hainbat idazlek sortutako Urruzuno literatura taldearen ideari jarraitzea da asmoa. Orduan, idazten eta irakurtzen zutena partekatzeaz gain, literatura saioak antolatu eta *Hamaika litera* liburuxka ere kaleratu zuten. Orain, urtarritetik ekainera hamabostean behin elkartuko dira, ostiral arratsaldeetan ordu eta erdiko saioak egiteko. Testu bat idazteari buruzko argibideak jasotzeaz gain, etxean landutakoa ere irakurri eta aztertuko dituzte. Hortaz, Idaztea eta irakurtzea gustuko duten LHÓ, DBH, Batxilergoa eta Erdi mailako Lanbide Heziketako ikasleak izena ematera gonbidatu nahi dituzte. Horretarako, Elgoibarko Udalaren Euskara Sailera jo behar da abenduaren 17a baino lehen.

Taupadaren 'Bainuetxea' antzezlanaren Mendaron abenduaren 3an

Elgoibarko Taupada antzerki taldeak *Bainuetxea* antzezlanaren eskainiko du Mendaroko San Agustin Kultur gunean abenduaren 3an, 19:00etan. Bere bizitza sentimentalak porrot egin eta amaren etxera bueltatu denean honek bainuetxera terapia bat egitera eramango duen gizonezko baten istorioa kontatuko dute antzerkian. Edurne Lasaren zuzendaritzapean eta Joxemari Larrañaga tekniko duela Maixux Otaegi, Ibai Leon eta Nagore Cid izango dira aktoreak.





Mikel Beunza eta Andrea Garai gailendu dira Karakateko Igoeran

azko etenaren ostean, mendi lasterkariak Karakaten lehiatzeko gogotsu zeuden, eta 77 lagunek hartu zuten parte igoeraren 27. edizioan, horietako zazpi emakumezkoak.

Parte hartzaileen jatorriari erreparatuta, elgoibartarrak izan ziren gehiengoak, 31 herritar guztira, baina Euskal Herriko toki askotatik ailegatu ziren parte hartzaileak, eta bat Castelldefelsetik ere bai. Gizonezkoetan azken hogeita metroetan erabaki zen irabazlea, Mikel Beunzak eta Iñigo Alzolak esprint ikusgarria jokatu baitzuten tontorrean ziren dozenaka lagunek inguratuta. Beunza nafarra gailendu zen emozioz beteriko bukaeran, eta 28 minutu eta 13 segundotan osatu zuen igoera. Hala ere, ez zuen Iban Mururaren errekorra (26:17) ontzerik lortu. Irabazleak 11 segundoko aldea atera zion Alzola antxitxikari arrasatearrari. Tontorra ikutu eta bat, bostekoa eman zioten elkarri, kiroltasunez, igoera ia guztia elkarrekin lehian egin baitzuten. Beunzak aurrez ere parte hartu izan du Karakateko igoeran, baina aspaldi etorri gabe zegoela esan zuen, eta igoerako lehen zatian galduta ibili zela ere azaldu zuen. Gorka De La Horra izan zen lehen elgoibartarra. Hirugarren egin zuen, 29 minutu justuko denbora eginda.

Emakumezkoetan, Andrea Garai gasteiztarra izan zen nagusi, 34 minutu eta 31 segundoko denborarekin, eta Mayi Mujika izan zen elgoibartarrik azkarrena (35:15), eta bigarrena emakumezkoen artean. Mendi lasterketako euskal selekzioko kide dira Garai eta Mujika. 2019ko igoera irabazi zuen Sonia Lopez ermuarrak egin zuen hirugarren emakumezkoetan. Aurpegiarik onenaren saria Lore Bereziartuari eman zioten Morkaikokoek zeregin horretara jarri zituzten lagunek. Bideoa, argazkiak eta sailkapen osoa barren.eus webgunean.



Uxue Ansorregik bigarren egin zuen Sherpa.Ai aizkolari txapelketaren finalean



Kar mele Gisasola Zelai III.a mallabiarra da Sherpa.Ai Aizkolari Txapelketa bakarka irabazi duen estreinako emakumea. Uxue Ansorregi mendarorria sailkatu zen bigarren postuan, irabazlearengandik minutu bat eta hamabost segundora, eta Maika Ariztegik egin zuen hirugarren. Sherpa.ai Aizkolari Txapelketa Nagusiaren finalean lehiatu ziren bederatzi aizkolariak 3.000 ikusleren aurrean aritu ziren, Bilboko Bilbao Arena Miribillan. Sekulako ikuskizuna izan zela azaldu dute aizkolariek, eta oso eskertuta daude antolatzaileek txapelketari ikusgarritasuna emateko egin duten ahaleginagatik. Gizonezkoetan Iker Vicente otsagabiarra gailendu zen, eta Mikel Larrañaga azpeitiarrak egin zuen bigarren.

Gazte eta umeentzako arku-tiro ikastaroak

Zarta Arkulari Elkarteak gazte eta umeentzako arku-tiro ikastaroak emango ditu Olaizaga kiroldegian, urte guztian zehar. Bereziki neskak animatu nahi dituzte kirol hau probatzera. Izena emateko honako telefonoetara hots egin behar edo whatsapp-a idatzi: 630 391 761 edo 646 421 244 . Edo honako helbidera idatzi: zartaef-goibar@gmail.com



'Nire erreferenteak' proiektua abiatu du Mikel Lizarralde, eta Ainhoa Lendinez da elkarriketatuetako bat

Esklerosi anizkoitzaren ikerkuntzarako dirua batzeko helburuarekin Gipuzkoa herriz herri bizikletan zeharkatu eta beste hainbat erronkari aurre egin ondoren, Mikel Lizarralde eibartarrak 'Nire erreferenteak' proiektua jarri du martxan. Bizitzan kolperen bat jaso arren buelta emateko gai diren pertsonak, berarentzat "erreferenteak" diren dozena bat lagun elkarriketatuko ditu, eta astean behin argitaratuko ditu bideo-elkarriketak *bizi.eus* webgunean. Lizarralde Pello Osororen laguntza izan du bideoak egiteko orduan, eta Maite Arroitauregi 'Mursego'-k jarri dio doinua proiektuari. Gainera, Danobat Group, Laboral Kutxa, Erreka Group eta Bike 360-ren babesua jaso du. Markel Irizar txirindulari ohia izan zen aurreneko elkarriketatua, eta Ainhoa Lendinez bigarrena. Eguaztenetik ikusgai dago elgoibartarrari eginiko elkarriketa. Duela bi urte, Lendinezek elkarriketatua zuen Lizarralde, Euskal Tebistarako, Zegama-Aizkorri probaren bezperan eta oraingoan paperak trukatu dituzte. Mikel Lizarralderen amesteko bat gauzatu berri du Lendinezek, Himalayan mendi espedizioa egitea. Nepaetik itzuli berri zela elkarriketatua zuen eibartarrak elgoibartarra, Karakate gainean. Elkarriketa egiteko arrazoietako bat Lendinezek urtea ez zuela ondoegi hasi izan zen, izan ere ebakuntza bat egin zioten, koskor susmagarri bat kentzeko. Ebakuntza horretatik Himalayara joan arte egin duen bidea ezagutu nahi izan du Lizarralde elkarriketa honen bidez.



Josu Artolak irabazi du Idotorben jokatu duten Espainiako Hard Enduro Koparako proba puntuagarria

Antxitikariak Karakateko maldetan lehiatzen ziren bitartean, moto gidariak Idotorbe eta inguruetako mendietan lehiatu ziren aurreko asteburuan. Urnabitza Kirol Klubak antolatuta, Espainiako Hard Enduro Koparako laugarren proba puntuagarria jokatu zuten, zapatuan eta domekan, eta modalitateko piloturik onetsuenak batu ziren Elgoibarren. Urnabitza-koek prestatutako zirkuito gogor eta teknikoa tamainako erronka zen moto gidarien trebetasun guztiak azalertzeko, baina erronka bikoiztu zuen aurreko astean egin zuen euriagatik lokatzez beteta zegoen ibilbideak. Bukatzea bera ga-



raipena izaten da era honetako probetan, amaierara iristen diren gidarien kopuruak erakusten duen moduan. Lehen bi sailkatuek bakarrik lortu zuten ibilbideari lau itzuli ematea. Josu Artola amezketarra izan zen azkarrena, hiru ordu eta 41 minutuko denborarekin. Espainiako Kopako sailkapeneko lider zela etorri zen Elgoibarrera eta lidertza sendotuta joan zen Amezketara. Peru Irazolak egin zuen bigarren, irabazleak baino 11 minutu gehiago erabilita. Junior mailan Iker Aleman gailendu zen eta Open mailan Peio Etxebeste. Trofeo Hard Enduro txapelketa ere jokatu zuten, aurrekoa baino ibilbide laburragoan eta samurragoan, eta Diego Teixeira gailendu zen senior mailan. Juniorretan Manuel Gomezek irabazi zuen trofeoa, eta Master 35 eta 45 mailetan Xose Ogando eta Roque Rodriguez nagusitu ziren, hurrenez hurren.

Gorka Garaizabalek kirol zinegotzi eta Elgoibarko Udal Kirol Patronatuko presidente izateari lagako dio

Gorka Garaizabal kirol zinegotziak kargua laga zuen eguaztenean egin zuten osoko bilkuran. Kirol zinegotzia izateaz gain, Kirol Patronatuko lehendakaria ere bada Garaizabal, eta Elgoibarko Udaletik jakitera eman dutenez, merezi duen arduraren eta dedikazioaren eskatzen duen postu bati behar duen denbora ezin eskaini izana izan da kargua uzteko arrazoia. Azken sei urte hauetan zinegotzi izatea ohore bat izan dela azaldu du Garaizabalek agur mezuan, "baina dedikazio handia eskatzen du gure herriaren alde lan egiteak, eta une honetan, ezinezkoa zait ehuneko ehuneko jardutea. Sei urte izan dira, non, nire alorretik proiektu estrategiko ugari atera ditugun aurrera, tartean, eta garrantzitsuena ziurrenik, Olaizaga Kiroldegiko igerileku berria". Unai Arizmendiarretak ordezkatu du Gorka Garaizabal, eta abenduko osoko bilkuran hartuko du kargua. Arizmendiarrak aurrez ere izana da zinegotzi, 2015-19 legealdian, hain justu ere.



LANA.....
Eskaerak

Adinekoak zaintzeko prest nago, orduka edo etxeko langile moduan.

☎ 641 322 939

Adinekoak zaintzeko prest nago, asteburuetan.

☎ 631 425 686

Adinekoak edo umeak zaintzeko eta garbiketa lanak egiteko prest nago.

☎ 740 031 348

Adinekoak zaintzeko prest nago, gauzez.

☎ 663 725 549

Adinekoak zaintzeko prest nago, gauzez.

☎ 618 439 041

Orduka egingo nuke lan. Adinekoak zaintzeko beharrezkoak diren tituluak eta esperientzia ditut. Garbiketa lanetarako ere prest egongo nintzateke.

☎ 631 229 408

Asteburuetan lan egiteko prest nago. Esperientzia handia daukat adinekoak zaintzen. Etxeko langile moduan edo orduka egingo nuke lan.

☎ 641 322 473

21 urteko gaztea eskaintzen da adinekoak zaintzeko, tabernak edo lokalak garbitzeko, baserrian lan egiteko... Autoa daukat. ☎ 681 374 335

Adinekoak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko prest nago, etxeko langile moduan edo orduka. Asteburuetan eta oporretan ere bai. ☎ 643 584 198

Adinekoak zaintzen egingo nuke lan.

☎ 641 322 473

Adinekoak zaintzeko edo hoteletan lan egiteko prest nago. Bietan esperientzia handia daukat. Orduka edo etxeko langile moduan lan egiteko prest nago.

☎ 642 846 905

Adinekoak zaintzeko eta garbiketa lanetarako prest nago, eta baita sukaldari laguntzaile aritzeko ere. Esperientzia handia daukat.

☎ 632 237 151

Asteburu eta jai egunetan adinekoak zaintzeko prest nago.

☎ 625 910 116

Goizetan etxeak garbitzeko prest nago. Esperientzia daukat.

☎ 635 490 633

Adinekoak eta umeak zaintzeko prest nago. Orduka eta asteburuetan.

☎ 648 039 187

Adinekoak eta umeak zaintzeko prest nago, eta baita etxeko lanak egiteko ere. Etxeko langile moduan

☎ 643 411 292

Eskaerak

Elgoibarko ileapaindegi baterako laguntzailea behar da (1. mailako ofiziala). Lanean berehala hasteko. Egun osoko lan jarduna eskaintzen da. ☎ 943 246 225

LOKALAK.....

Gazteentzako lokala alokatzen dugu, San Roke auzoan. 133 metro koadroko lokala da, irisgarritasun onekoa, larrialdietarako irteeraduna eta Udal arautegia betetzen duena. ☎ 679 332 407

GARAJEAK.....

Garaje itxia salgai edo alokairuan, San Roken, kiroldegi aurrean. ☎ 679 851 185

ETXEBIZITZAK.....

Estudioa alokatzen dut Elgoibarren, erabat jarrita. ☎ 669 665 252

BESTELAKOAK.....

90 zm-ko bi ohe salgai. Egoera onean. ☎ 943 531 648 / 669 916 148

Lepokoa galdu nuen azaroaren 12an Elgoibarren. Norbaitek topatu badu deitu dezala nire telefono zenbakira. Eskertuko diot. ☎ 680 707 639



administradores

Consejo Vasco de Colegios de Administradores de Finanzas
Euzkoako Finantza Administrazioen Kontseilua



**ROSA Ma
PINTADO**

Etaldean Administrazio-Gradu ikasketen arduraduna Alcala de Henareseko Unibertsitatean, eta Gipuzkoa, Bizkai eta Arabako, Errioxako eta Kantabriako ikastetxeetan. Zuzenbidean lizentziatua. Kolegiatu zenbakia: 749

660 969 679
rosapf@telefonica.net

Etxejabe batek, bizilagunen batzordean sartzen denean, hitz egiteko eta botoa emateko aukera izan dezake?

Nire ustez, bizilagun batek, batzarra hasita dagoenean sartuz gero, zerrendako gaietatik jadanik landuta daudenei buruzko bere iritzia eta botoa emateko aukera galduak izango ditu. Etxejaberaren bat batzarrera berandu iristek ez du atzera eraginezko ondorioirik izango bileran dauden gainontzeko etxejabeek hartutako erabakietan, are gehiago bere botoak gehiengoa baldintzatu eta bozkaturakoa aldatu badu. Kasu horretan legezkoa da landutako gaiak berriro irekitzeari uko egitea, beraz, etxejabe horrek ez du eskubiderik izango bozketa berriz egitea eskatzeko. Egoera horretan aurreko gaien erabakien emaitzak jakintzat joko dira, beraz, ez zaio propio eman behar emaitzon berri. Gainera akordioak inpugnatu ahal izango ditu, bere iritzia azaldu ez eta bozketan parte hartu ez duelako, eta bileran izan ez dela kontuan hartuko da.

Ondorioak: Bilerara iritsi eta oraindik eztabaidatu eta bozkatu gabeko zerrendako gaietan askatasunez parte hartzeko aukera izango du etxejabeak. Berandu izan arren bilerara bete-betean sartuko da, beraz, ez diote boto eskubidea mugatu edo ukatuko. Etxejaberaren batek bilera aurrera doan bitartean alde eginez gero, bileran zegoen bitartean emandako botoak baliozkoak izango dira, ez, ordea, joan ondoren hitz egingandako gaien buruzkoak joan egin dela kontuan hartuko baita.

ASESORIA
GO/R

AHOLKULARI KOLABORATZAILEA
San Bartolome, 2



**Azaroaren 30ean
Arrats Pub-ek
ateak itxiko ditu.
Mila esker
37 urte eder hauengatik**



Taberna salgai edo alokagai dago.
Harremanetarako: 688 627 738

EXPRESS ESKAINTZAK!

**BOSCH COMBI
KGN397WEQ
HOZKAILUA**

599 €
(prezia unitateko)



- Ez frost.
- 368 litroko edukiera.
- 203 cm-ko altuera.



MILARBIRE

Ubitarte, 11 - 943 741 487 - bire@milar.es

Dendako prezioak. Produktuak agortu arte.

INDARKERIA MATXISTAREN AURREAN EZ ZAITEZ IKUSLE HUTS BAT IZAN

ERASO ASKO GURE BEGIEN AURREAN GERTATZEN DIRA.
ZUK ERE BADUZU HAU ALDATZEKO ARDURA.



NOLA JOKATU JAKITEKO INFORMAZIOA:
berdintasuna.eus

Gizarteak
Pasa Aldean
Diputazioaren
Bilaketa



**ETORBIZUNA
ORAIN**
Es futuro

26 BARIKUA

16:30 Hitzaldia: 'Sintromaren kontrola eraketik'. Jubilatuen Biltokian.

17:00 Jostailu erakusketa: 0-8 urte bitartekoentzako jostailuak Kultur Etxeko erakusketa gelan egongo dira ikusgai, eta 9 urtetik aurrerakoentzakoak Aita Agirreko Kulturgunean.

20:30 Kontzertua: Anne Etchegoyen. Herriko Antzokian.

27 ZAPATUA

9:00 Hileko azken zapatuko feria. Baserrietako produktuak jarriko dituzte salgai Kalebarren plazan, eta eguerditik aurrera ganadu erakusketa egingo dute.

11:00 Mendaroko nerabe eta gazteen egoeraren diagnosia egiteko saio parte hartzailea. Mendaroko Gaztelekuan.

11:30 Jostailu erakusketa: 0-8 urte bitartekoentzako jostailuak Kultur Etxeko erakusketa gelan egongo dira ikusgai, eta 9 urtetik aurrerakoentzakoak Aita Agirreko Kulturgunean.

19:00 Antzerkia: 'Evaren alabak'. Mendaroko San Agustin kulturgunean.

28 DOMEKA

9:45 Udal Musika Bandaren kalejira. Kalegoen plazan hasita.

12:30 Udal Musika Bandaren Santa Zeziliaren Eguneko kontzertua. Herriko Antzokian. Egitaraua: *Slim Trombone* (H. Fillmore / Moldaketak: I. Urkizu); *Elementos tribales* (J. M. Fallos); *Monte Cervino* (M. Geisler); *Homenaje a Morricone* (E. Morricone)

29 ASTELEHENA

18:00 Hausnarketa taldea. 'Bakarrik bai da bai'. Lilan. Emakumeenganako Indarkeriaren Nazioarteko Eguneko egitarauaren barruan.

19:30 Musika Eskolako kontzertua. Musika Eskolako auditoriumean. Segidan, diploma banaketa.

30 MARTITZENA

19:30 Musika Eskolako kontzertua. Musika Eskolako auditoriumean.

1 EGUAZTENA

19:00 'Beltzean mintzo' dokumentala eta Jon Sarasuaren solasaldia. Musika Eskolako auditoriumean.

3 BARIKUA

18:00 'Haurren aurrean, helduok heldu' egitasmoaren amaiera ekitaldia. Aita Agirre kulturgunean.

19:00 Antzerkia: 'Bainuetxea'. Taupadak antzeztuko du, Mendaroko San Agustin kulturgunean.

Zinea (Herriko Antzokian)



'Venom: Habrá matanza'

27 zapatua: 19:00 / 22:15

28 domeka: 19:00

29 astelehena: 21:00

'La Familia Addams 2: La gran escapada'

28 domeka: 16:30

'Paperezko hegoak'

3 barikua: 21:30

JUBILATUEN ASTEA Azaroaren 22tik 28ra

26 BARIKUA


18:00 Gabonetako otarren zozketa.

27 ZAPATUA

16:30 Kina berezia.

28 DOMEKA

11:30 Meza, San Bartolome parrokian.



Iñaki Arrillaga Arrillaga

2021eko azaroaren 20an hil zen, 88 urte zituela

Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak, bai eta hileta elizkizunetara agertu izana ere.



Botika ordutegiak 09:00 - 13:00 / 16:00 - 20:00

GUARDIAK

Egunez: 09:00-22:00

Iluntzean: 20:00-22:00

Larunbatak: 9:00-14:00 (*)

26 BARIKUA	27 ZAPATUA	28 DOMEKA	29 ASTELEHENA	30 MARTITZENA	1 EGUAZTENA	2 EGUENA	3 BARIKUA
Egunez *Ibañez	Egunez Garitaonandia	Egunez Garitaonandia	Egunez Arriola	Egunez *Fernandez	Egunez Yudego	Egunez *Oruesagasti	Egunez Barrenetxea
Iluntzean Yudego	Iluntzean Garitaonandia	Iluntzean Garitaonandia	Iluntzean Arriola	Iluntzean Yudego	Iluntzean Yudego	Iluntzean Barrenetxea	Iluntzean Barrenetxea

* Fernandez:
Herriko Enparantza, 4
Garagartza (Mendaro)
943 756 142

* Ibañez:
Rekalde, 1 (Soraluze)
943 751 638

* Oruesagasti:
Kalebarren, 9 (Soraluze)
943 751 384

Urte guztian, gauzez: 22:00-09:00
Arantzazu Izpizua, Ibarkurutze, 7 (Eibar)
943 201 912

ETA DEBABARRENEAN ZER?

BLUES HOTSAK
SORALUZeko ANTZOKIAN, 20:00ETAN

26 barikua: Niko Etxart & Hapa Hapa.
27 zapatua: Kokojean & The Tonics.



Hotzari aurre egiteko aukerarik onena, Mora etxeko mantak.

Sofarako eta oherako mantak.

Mila esker zuen konfiantzagatik!



San Roke kalea, 20 - Elgoibar - 943 744 457 - 685 756 978 - www.textillagunak.com



943 743 704
688 769 657

Jarri ezazu zure publizitatea BARREN astekarian edo www.barren.eus webgunean

Galdetu prezioak eta gustura erantzungo dizugu.



barren.publi@elgoibarkoizarra.eus
Aita Agirre Kulturgunea, 3, 3 ezk. - 20870 ELGOIBAR





Abenduaren Tetik 24ra!
Kima Bioestetikako bezeroen artean, eguneko zozketa bat!

Azalpen gehiago
@kimabioestetika

TXANDA HARTZEKO:
646 563 706

Urrezandi 9, behea - Elgoibar - www.kimabioestetika.webkoibox.com



Lur
Arrieta
Martin.
4 urte,
Elgoibar

"Indiarra"



Aitor
Etxaniz
Arano.
5 urte,
Elgoibar

"Borroka sumendian"





Soledad Ugarte Muñoz

"Bermeana"

2021eko azaroaren 20an hil zen, 88 urte zituela.
Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak,
bai eta hileta elizkizunetara agertu izana ere.

Zure distira ez da inoiz itzaliko.

Etxekoak



I. URTEURRENA

Carlos Lehr Iraegi

2020ko azaroaren 25ean hil zen, 72 urte zituela.
Haren oroimenez I. urteurreneko meza izango da, domekan,
azaroaren 28an, 11:30ean, Elgoibarko Bartolome Deunaren
eliz-parrokian. Joango zaretenoi aldez aurretik eskerrak.

***Udazkeneko hostoak erortzearekin batera
alde egin zenuen gure artetik,
baina ez orduan eta ez sekula ere,
ez zara joango gure bihotzetatik.***

Etxekoak



XVIII. URTEURRENA

Lorea Etxabe Azkue

2003ko azaroaren 26an hil zen, 30 urte zituela.

***Edur zuritan hazittako
lore gorrixa zīñan.
Urtu eraitten zendun
inguruko hotza,
eta bedarra hazi erain.***

***Ez dogu gehixago
zure berua igarriko,
baiña hementxe gerauko da
zure arnasia azarnia,
botatako sustraixen gaiñian.***

Zure familia eta lagunak

ABENDUAK 3,
EUSKARAREN NAZIOARTEKO EGUNA

Beltzean mintzo

Amerikako jatorrizko hizkuntzen arnasaz **DOKUMENTALA**

Aurkezlea: **Jon Sarasua**



Zer ari da gertatzen Ameriketako hizkuntza handiekin?

Nola ikusten gaituzte euskaldunok gainerako hizkuntza gutxituetako kideek?

Lagun ahal dakieke euskal esperientziak beraien hizkuntza berreskurapen prozesuan?

Abenduak 1, asteazkena
19:00etan, Musika Eskolako auditorioan



Euzko Kultura Garaia



Euzko Kultura Garaia



Gipuzkoako Foru Aldundia



Euzko Legebiltzaria
Gobierno Vasco

Euzko Legebiltzaria
Gobierno Vasco